

# Kornubieraren bizitza, heriotza eta berpiztea

Egilea: Nerea Ugarriza Ortueta

Gradua: Itzulpengintza eta Interpretazioa

Ikasturtea: 2020-2021

Tutorea: Xabier Zabaltza Pérez-Nievas

Saila: Gaur Egungo Historia



LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

## LABURPENA

Hizkuntzen eta nazioen arteko lotura kultural, sozial zein politikoak nabarmenak dira kasu askotan; nekez banandu ditzakegu hizkuntza gehienak nazio kontzeptutik. Ereku urriko hizkuntzen kasuan harreman horiek bereziki konplexuak dira, hizkuntza txiki eta nagusien arteko lehiak, funtsean, lurralde txiki eta nagusien arteko lehia ere ekartzen duelako. Hala, politikak esku hartzen du hizkuntzaren esparruan, eta horrek eztabaida delikatua dakar sarritan. Lan honetan, kornubiera hizkuntzaren bilakaera aztertu dut. Kornubieraren kasua bereziki bitxia da bere historian zehar bizi, hil, eta berpiztu egin delako. Horregatik, batez ere XVIII. mendeko heriotza XX. mendeko berpizkundea eta gaur egungo egoera aztertu ditut. Horretarako, heriotzan zein berpizkunderan eragina izan duten hainbat aspektu hartu ditut oinarri, bai eta hizkuntzaren gorabehera nabarmenak ere. Hain zuzen ere, gorabehera horiek, askotan, hizkuntzaz gaindiko gertakariak zehaztu dituzte eta beraz, hizkuntza bera bakarrik ez, hizkuntzaren testuingurua ere kontuan hartu dut. Testuinguru horretatik kornubiar nortasunaren oinarriak eta nazionalismoarekiko jarrera orokorra bildu ditut, eta hizkuntzaren eta nazionalismoaren arteko lotura orokorrago bat jaso ahal izateko, konparaketa egin dut beste hizkuntza eta egoera soziolinguistiko batzuekin, hala nola hebreerarekin. Bi hizkuntzek herri-hizkuntza gisa beren lekua berreskuratu nahi izan duten arren, berpizkunderak oso modu ezberdinean garatu dira kontzeptu gako baten ondorioz: kornubiera nazionalismo eta eremu politikotik guztiz aldentu den bitartean, hebreera proiektu politiko baten baitan berpiztu zen. Ildo horretatik, nazionalismoen aspektu politikoa, hizkuntzaren politizazioa eta politizazio horrek hizkuntzaren berpizkunderan duen eragina ere aztertu ditut. Bukatzeko, kornubieraren historiak, hebreerarekiko alderaketak eta eremu urriko hizkuntzen azterketak hainbat ondoriotara ekarri naute, eta nazio eta hizkuntzen harremana nolakoa den ondorioztatu ahal izan dut.

**Hitz gakoak:** kornubiera, hebreera, berpizkundea, eremu urriko hizkuntza, nazionalismo politiko.

## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>Sarrera .....</b>	<b>4</b>
<b>2.</b>	<b>Hizkuntza XVIII. mendetik XIX. mende amaierara arte .....</b>	<b>5</b>
2.1.	Testuingurua: hizkuntzaren sailkapena.....	5
2.2.	Heriotzaren aurrekariak .....	6
2.3.	Heriotzaren ondorengo urteak .....	7
2.4.	Meatzaritza eta metodismoa kornubian: identitate berriak.....	7
<b>3.</b>	<b>Hizkuntzaren berpizkundea: XX. mendea .....</b>	<b>9</b>
3.1.	Henry Jenner: berpizkondearen aita .....	9
3.2.	Hizkera batua .....	11
3.3.	Hizkuntza eta politika .....	12
<b>4.</b>	<b>Gaur egungo egoera.....</b>	<b>13</b>
<b>5.</b>	<b>Kornubiera eta hebreera aurrez aurre .....</b>	<b>15</b>
<b>6.</b>	<b>Ondorioak.....</b>	<b>17</b>
<b>7.</b>	<b>Esker onak .....</b>	<b>21</b>
<b>8.</b>	<b>Bibliografia .....</b>	<b>22</b>

## 1. SARRERA

Europar Batasunak elkarte gisa hogeita lau hizkuntza ofizial ditu. Alabaina, Europan eskualde ezberdinetako eremu urriko hirurogei hizkuntza autoktono baino gehiago daude, eta baita autoktonoak ez diren migratzaile komunitateek hitz egiten dituzten hainbat hizkuntza ere (Eurobarometer, 2012). 1998ko martxoaren 1ean, Europako Kontseiluak martxan jarri zuen Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Gutuna, eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko asmoarekin (Europako Kontseilua, 2020).

Haatik, hizkuntzalari askoren iritziz, munduko ia 7.000 hizkuntzen artean, erdia galtzeko arriskuan gaude, eta mende honen amaierarako horietako gehienak galdu egingo dira. Are gehiago, bi asterik behin hizkuntza bat galtzen dela uste da (Wilford, 2007). Arrazoi ugari dago hizkuntza bat hiltzeko. Adibidez, komunitate txikietan erabiltzen den hizkuntza bat galdu egin daiteke izurrite baten, gerren edo naturaren hondamendien ondorioz. Dena dela, hizkuntza gehienak testuinguru elebidun edo eleanitz batean galtzen dira, hizkuntza handiago batek eremu urriko hizkuntza bat ordezkatzeko duenean (May, 2001: 1). Hizkuntzen arteko lehia horrekin batera, orokorrean, nazio gutxitu eta handituen arteko lehia politiko bat ere gertatzen da, eta beraz, hizkuntza, nazionalismo, eta estatuen arteko erlazioa bereziki delikatu da eremu urriko hizkuntzen kasuan.

Hizkuntzak hil egiten diren arren, kasu batzuetan berpiztu ere egin daitezke. Hizkuntza berpiztu horietako bat hartu dut nire lanaren oinarri gisa: kornubiera. Lan honetan kornubieraren bilakaera aztertu dut, batez ere XVIII. mendeko heriotzatik XX. mendeko berpizkundera eta gaur egunera arte. Heriotzan zein berpizkundera eragina izan duten hainbat aspektu hartu ditut oinarri, bai eta hizkuntzaren gorabehera nabarmenak ere. Hain zuzen ere, gorabehera horiek, askotan, hizkuntzaz gaindiko gertakariak zehaztu dituzte eta beraz, hizkuntzaren testuingurua ere kontuan hartu dut. Kornubieraren historiak gaur egungo egoera aztertzerako ere ekarri nau. Aipatu bezala, kornubiar nortasunaren oinarriak eta nazionalismoarekiko jarrera orokorra bildu ditut, eta horrez gain, hizkuntzaren eta nazionalismoaren arteko lotura orokorrago bat jaso ahal izateko, konparaketa egin dut beste hizkuntza eta egoera soziolinguistiko batzuekin, hala nola hebreerarekin, egun Israelgo Estatuko hizkuntza ofizialarekin. Aldi berean, nazionalismoen aspektu politikoa, hizkuntzaren politizazioa eta politizazio horrek hizkuntzaren berpizkundera duen eragina ere aztertu ditut.

Metodologiari dagokionez, lan hau egiteko iturri historiko zein linguistikoak erabili ditut. Lehenik eta behin, lana testuinguru zehatz batean ezartzeko, kornubieraren berpizkundearen historia aztertu dut, eta horretarako hainbat artikulu zein liburu erabili ditut iturri gisa. Gainera, kornubiera hizkuntzaren berpizkundearen hasieratik nazionalismoak izan duen funtzioa aztertu nahi izan dut, baita orokorrean nazionalismo eta hizkuntzek duten elkar-eragina, eta hori egiteko elkarrizketa pertsonalak erabili ditut: kornubieraren alde egiten duten hainbat erakunderekin hitz egiteko aukera izan dut, eta hala, mota askotako iturriak lortu ditut. Orobat, Siarl Ferdinand hizkuntzalariarekin hitz egiteko aukera ere izan dut, eta horrek asko lagundu dit bere ikerketen emaitzak sakonago ulertzen. Informazio horrekin kornubiar nazionalismoaren joerak aztertu ditut, eta beste kasu batzuekin konparatu dut goian aipatu bezala, batez ere hebreeraren berpizkundearekin.

## **2. HIZKUNTZA XVIII. MENDETIK XIX. MENDE AMAIERARA ARTE**

### **2.1. TESTUINGURUA: HIZKUNTZAREN SAILKAPENA**

Kornubiera Kornubia (*Cornwall* ingelesez, *Kernow* kornubieraz) konderriko berezko hizkuntza da, eta Erresuma Batuko hego-mendebaldean hitz egiten da. Kornubia sei zelta nazioetako<sup>1</sup> bat da, eta bertako berezko hizkuntzak, kornubierak, K.a. 600. urte inguruan du jatorria. Hizkuntza indoeuroparren artean dago sailkaturik; zehazki, hizkuntza zeltikoen barruan, hego-mendebaldeko hizkuntza britonikoen barruan sailkatu daiteke (Ferdinand, 2013: 199). XVIII. mendearen amaieran galdu zen arren, azken 100 urteetan hein batean berpiztu egin da. Kornubiera galesarekin eta bretoierarekin estuki lotuta dago, eta horrek nabarmen lagundu du berpizkunde-prozesuan. Are gehiago, bretoierak eta kornubierak antzeko hitz ugari dituzte, eta XVI. mendera arte bi lurraldeen arteko komunikazioak asko lagundu zuen Britainia eta Kornubia eremuen arteko erlazioak sustatzen eta, aldi berean, hizkuntza mantentzen (Ferdinand, 2013: 199). Lotura horren erakusle argia da Kornubiako, Galeseko eta Britainiako himno nazionalak doinu berbera dutela (Cornish National Music Archive, 2020). Halaber, Kornubia eta Britainiaren arteko harremana bereziki garrantzitsua izan da kornubieraren nortasun zeltikoa garatzeko eta aldi berean, berpizkundera aurrera eramateko.

---

<sup>1</sup> Zelta nazioak sei dira: Gales (*Cymru*), Irlanda (*Éire*), Britainia (*Breizh*), Eskozia (*Alba*), Kornubia (*Kernow*) eta Man uhartea (*Mannin*, edo *Ellan Vannin*). (Celtic League, 1996: 1)

## 2.2. HERIOTZAREN AURREKARIAK

Kornubierak, azaldu bezala, hainbat eta hainbat gorabehera jasan izan ditu mendeetan zehar. Oliver Padel hizkuntzalari historikoak (2010) erakutsi du Erdi Aroko hasierako garaitik ingelesak bidea hartu zuela, eta 1300. urterako jada hizkuntza ez zela erabiltzen Kornubiako ekialdean (Dunmore, 2020: 5). Tudor Dinastiak (1485-1603) eta Erreforma protestanteak (1517) ere eragin handia izan zuten hizkuntzaren galeran. XVI. mendean kornubiera kultura zeltiko-katolikoaren erakusle garrantzitsua izan zen, katolizismoak indar handia izan baitzuen garai hartan Kornubiako hego-mendebaldean. Garai hartako kornubiar gizarteak, beraz, bereizgarri oso garrantzitsua izan zuen inguruko lurralde ingelesekiko: erlijioa. Edonola ere, 1549. urtean, *Prayerbook Rebellion* izeneko matxinadaren porrotak eraginda, hizkuntza-aldaketa nabarmen bizkortu zen, eta ingelesa gero eta leku gehiago hartzen hasi zen. Matxinada klero anglikanoek hasi zuten, kornubiar ohituren aurka egiteko asmoz. Erreboltak liskar nabarmen ugari eragin zituen *West Country* delakoan, eta kornubiarren porrotak, esan bezala, hizkuntzaren galera nabarmen bizkortu zuen. Kornubiar matxinoek ingeles berria erabiltzearen aurka egin zuten (Payton, 2004: 123), hein handi batean katolizismoaren defentsa egin eta protestanteen otoitz-liburuari uko egiteko. 1549ko matxinadaren ostean, ordea, aldaketa soziokultural nabaria gertatu zen, gizarte zeltiko-katolikoa alde batera utzi eta anglikanismoa<sup>2</sup> nabarmendu zelako, baita nortasun ingelesa ere. Hala, kornubiera bazterreko elementu kultural bilakatu zen, bere nortasunaren oinarria (erlijio bereizia) galdu zuelako. XVI. menderako, kornubiera batez ere arrantzale eta itsasgizonek erabiltzen zuten, eta horrek hizkuntzaren estigmatizazioa ekarri zuen (Dunmore, 2020: 6), baita hizkuntzaren prestigioaren gainbehera ere. Ingalaterrako Iraultzaren (ingelesez, *English Civil War*) ostean, kornubiar nortasunaren bereizgarritasun berri batzuk sortzen hasi ziren industrializazio prozesuaren eskutik.

Hori hala izanik ere, eta kornubiar hiztunen kopuruak nabarmen behera egin zuen arren, hainbat lanek nabarmen azaltzen dute kornubiar nortasun kulturalak iraun egin zuela, batez ere eskualdeko mendebaldean. Garai industrialaren hasieran, oraindik ere, hizkuntza etxean erakusten zen, gutxienez XVIII. mendearen amaierara arte (Payton, 2004: 176). Deaconek (1997: 12) azaldu zuenez, eta goian aipatu bezala, garai hartan

---

<sup>2</sup> *Anglikanismo*. iz. Ingalaterrako Eliza ofiziala, bertako errege Enrike VIII.ak Erromarekiko loturak haustean sortua (1534); (...). XVI. mendeko Erreformaren inguruan Erromako katolizismoaren eta kalbinismoaren tartean eratu zen anglikanismoa, Ingalaterrako Eliza nazional (Church of England) gisa.

kornubiar bereizgarritasun berri bat sortu zen, eta bereizgarritasun horrek jada ez zuen ardatz gisa nortasun etnolinguistikoa: hizkuntzak bigarren mailako garrantzia hartu zuen. Garai hartan kornubierari buruz egin ziren lanak jada ez zuten helburu hizkuntza mantentzea; helburua akademikoa edo historikoa zen. Edward Lhuyd hizkuntzalariak, adibidez, gramatika bat sortu zuen «kornubiera hitz egin zezakeen edonorentzat» (Pryce, 1790; Dunmoren lanetik, 2020). 1701. urtean idatziriko gutun batean, Lhuydek azaldu zuen kornubiera ordurako Kornubiako mendebaldeko kostara mugaturiko hizkuntza bat zela (Williams, 1993: 25).

Hizkuntzak zein urtetara arte biziraun zuen ez dago argi oraindik; izan ere, Dolly Pentreath hartu izan da hizkuntzaren azken hiztuntzat, eta 1777an hil zenean, hizkuntza berekin hil zela uste izan da. Halarik ere, Daines Barrington hizkuntzalaria 1768an Kornubiara abiatu zen hizkuntzari buruzko ikerkuntza egitera. Dolly Pentreathekin elkartu zenean, emakumeak kornubiera hitz egiten zuela ziurtatzeaz gain, bere auzokideek emakumeak esaten zuenari barre egiten ziotela ere ikusi zuen, eta beraz, hizkuntza nola edo hala ulertzen zutela (Warner 1809: 358, Dunmoren lanetik, 2020: 10).

### **2.3. HERIOTZAREN ONDORENGO URTEAK**

XVIII. mendean, kornubiar nortasunaren bereizgarri kultural eta sozioekonomikoak loratzen hasi ziren; are gehiago, hizkuntza ia desagertu zen arren, oraindik ere konderriko mendebaldean nolabait bizirik jarraitzen zuen (Dunmore, 2020: 7). Lehen aipatu bezala, Kornubiako gizartea nabarmen aldatu zen industrializazioarekin batera. Hizkuntza oraindik hitz egiten zen bitartean, meatzaritzak izugarrizko indarra izan zuen, batez ere mendebaldeko eremuetan (Dunmore, 2020: 8). MacKinnonek (2005: 219-220) aipatu zuenez, hizkuntzak nabarmen lagundu zuen industria berri horrentzako neologismoak sortzen. Ez hori bakarrik, Borlasek (1973: 412) aipatu egiten du bere lanean kornubiera hizkuntzatik «nekazaritza, arrantza eta eraikuntzako» termino ugari lortu zirela (Dunmoren lanetik, 2020: 11).

### **2.4. MEATZARITZA ETA METODISMOA KORNUBIAN: IDENTITATE BERRIAK**

Williamsek dio (2008: 88) nortasunaren agerraldiak nabariak direla hizkuntzaren gainbehera ostean. XVIII. mendean, nortasunaren agerraldi horiek eta Kornubiako gizartearen bereizgarri gehienak meatzaritzaren eskutik etorri ziren (Deacon, 1997: 16). Hizkuntzak hainbat arrasto utzi bazituen ere (leku izenetan, lanbide arloko

terminoetan...), metodismoa eta meatzaritza gailendu ziren kornubiar nortasunaren bereizgarri gisa (Dunmore, 2020: 12). Kontuan izan behar da, meatzaritzaren momentu gorenean, Kornubiako biztanleria aktiboaren heren batek industria horretan jardun zuela, eta beraz, meatzaritza-industria kornubiar gizartearen erdigunean jarri zela (Payton, 2004: 212).

Aldi berean, eliza metodista indarra hartzen hasi zen, eta eliza anglikanoak garrantzia galdu zuen lurraldean. Hogeita hamar urteren buruan eliza metodistak Kornubiako parrokien % 85a ziren (Deacon, 2007: 113). Metodismoa bilakatu zen, beraz, Kornubiako erlijio nagusia, eta horrek eragin handia izan zuen gizartean. Alabaina, XIX. mendean pentsamolde liberal erradikalak zabaldu ziren Kornubian, eta kornubiarren ezaugarri bereizgarriak askotan britainiar nortasunarekin nahasturik zeuden. Horri abertzaletasun ingelesarekin batu zitzaion, Kornubia Ingalaterra zela ziurtzat hartu zutelako (Deacon, 2007: 153). Beraz, kornubiar nortasuna hein handi batean hizkuntzarekin batera hil zela esan daiteke.

Industrializazio garaian kornubiera hizkuntza nortasunaren irudikapen sinbolikoa izan zen, baina meatzaritza eta metodismoaren garaian guztiz bazterturik gelditu zen. XIX. mendean, ordea, gauzak aldatu egin ziren. 1830eko hamarkadan meatzaritzako langile gazteak atzerrira joan ziren lan egitera, adibidez Australia, Txile edo Ipar Amerikara, eta badirudi horien artean kornubiar hiztunak ere bazeudela, William Gwavas (1676-1741) izeneko gizon batek kornubieraz gutunen bat idatzi zuelako (Sgrúd, 2000: 6). Migrazio prozesu horri «The Great Emigration» (Emigrazio Handia) deitu zioten, eta hasieran Kornubiako meatzaritzak nazioartean izan zuen arrakasta gisa ulertu zuten. Haatik, handik gutxira, atzerriko herrialde horietako meatzaritza Kornubiakoa baino askoz arrakastatsuagoa bihurtu zen (Halliday, 1959: 297). Kornubiako meatzeetako biltegiak agorturik zeuden jada XIX. mendearen amaierarako, eta beraz, gero eta gazte gehiagok egin zuten alde atzerrira lan bila. Hala, eskualdeko ekonomiaren gainbeherak eta industrializazio-prozesuaren etenak eskualdeko nortasun berri hori ere eten zuen (Deacon, 1997: 21). Kornubiarren diaspora mundu osoan zehar hedatu zen, eta gaur egunera arte ere eragina izan du: Australian, adibidez, kornubiar ondorengoek lotura bereziak egin dituzte haien arbasoen aberriarekin, eta horrek gaur egun jende askok hizkuntza ikastea eragin du (Sgrúd, 2000: 6).

Hala, gertakari horiek ekonomiaren gainbehera eta industrializazioaren etena ekarri zuten. Krisi sozioekonomikoak, ordea, hizkuntzari onura egin zion eta kornubierak berriro ere hartu zuen garrantzia. 1860an, Kornubiako maila-ertaineko klasea nortasun



zeltikoa berreskuratzen hasi zen krisiak bultzaturik (Deacon, 2007: 150). Askok haien nortasuna berreskuratzeko asmotan, Kornubia Zeltiko Katolikoaren ikurrak berreskuratzeko saioa egin zuten, (Payton, 1997: 27). Horregatik esan daiteke berpizkundea nazio sentimendu batetik baino, Antzinako Kornubiarekiko nostalgia sentimenduagatik eta gainontzeko herrialde zeltek irabazi zuten ospeak bultzaturik gertatu zela. Azpimarratzekoa izan zen, berriro ere, Kornubia eta Britainiaren arteko harremana: kornubierak bretoiaren laguntzarik gabe zailtasun handiak izango zituen berpizteko. Kontuan izan behar da, gainera, XIX. mende amaierarako kornubiera jada galdua egon zela ia mende oso batez.

### **3. HIZKUNTZAREN BERPIZKUNDEA: XX. MENDEA**

Hizkuntzak bizirik jarraitu zuen, nolabait, Kornubian. Hizkuntzari erreferentzia egiten zioten elementuak gorde egin ziren kaleen izenen, pertsona izenen, edo literatura herrikoia baita (Sgrúd, 2000: 12). Kornubiarren identitate zeltikoaren berreskurapenaren eskutik, XX. mende hasieran hizkuntzaren berpizkundearentzako ezinbestekoak izan ziren hainbat gertakari jazo ziren. Lehenik eta behin, 1901. urtean *Cowethas Kelto-Kernuak* (euskaraz, Elkarre Kornubiar-Zeltikoa) sortu zen. Elkarrean sorrera ezinbestekoa da kornubieraren berpizkunde-prozesua ulertzeko, bai eta hizkuntzaren berpizkundearen gorabeherak ulertzeko ere. Garrantzitsua izan zen, halaber, garai hartan zelta nazioek izan zuten berpizkunde orokorra. Izan ere, zelta nazioen mugimenduek garrantzi handiagoa eman zieten bizirik zeuden hizkuntzei, eta horrek desabantaila handia sortu zion kornubierari eta orokorrean, kornubiar nortasunari (Hale, 1997: 92).

#### **3.1. HENRY JENNER: BERPIZKUNDEAREN AITA**

XX. mendearen hasierara arte banakoek hizkuntza haien kabuz ikasten zuten, eta hizkuntza batez ere idatziz eta helburu akademikoetarako erabiltzen zen. Hala izan zen 1904. urtean, Henry Jenner izeneko gizon batek *A Handbook of the Cornish Language* (Kornubiako Hizkuntzaren Eskuliburua) argitaratu zuen arte. Jenner galestar eta bretoi bardo<sup>3</sup> bilakatu zen 1899 eta 1903 urteetan, hurrenez hurren. Aurretik egin ziren lanak ez

---

<sup>3</sup> Bardoak hizkuntza eta kultura zeltikoaren ikuspuntutik, olerkari ofizialak ziren (OEH).

bezala, jendeak hizkuntza ikastea izan zuen helburu: «kornubiar naziotasuna duen eta haren hizkuntza zaharraren inguruko ezagutza jaso nahi duen edozeinentzako» (Jenner, 1904, Dunmoren lanetik, 2020: 17). Liburu horrek oinarri garrantzitsua ezarri zuen hizkuntzaren berpizkunderako (Sgrúd, 2000: 8).

Jennerrek hizkuntzaren berpizkunde urteetan nazionalismoa hartu zuen oinarri gisa, eta hainbat lanetan «kornubiar naziotasuna» aipatu zuen (Dunmore, 2020: 17). Horrekin batera, hizkuntza ikasteko arrazoien erdigunean jarri zituen nazionalitate eta identitateak: «Zergatik ikasi beharko lukete kornubiarrek kornubiera? Ez dute dirurik lortuko, ez du helburu praktikorik, eta literatura urria da. Gainera, ez da originaltasun edo balio handikoa. Galdera ona da, eta erantzuna sinplea. Kornubiarrak direlako». (Jenner, 1904. Dunmoren lanetik, 2020: 17, itzulpena nirea). Gainera, kornubiar nazionalismoa britainiar nazionalismotik bereizi nahi izan zuen (Dunmore, 2020: 17). Jennerrek hizkuntzari ekarpen garrantzitsua egiteaz gain, beste ekarpen garrantzitsu bat ere egin zuen. Lehen esan bezala, garai hartan errezelo nabaria zegoen Kornubia nazio zelten artean onartzeko, bertako hizkuntza hilik zegoelako. Jennerrek, 1904ko Caernarfon udalerrian eginiko Biltzar Zeltikoan, bere lana aurkeztu eta «Kornubia - Nazio Zelta» izeneko hitzaldia egin zuen. Beraz, gaur egun Kornubiak duen nortasun zeltikoa ekimen horri esker dela esan daiteke (Sgrúd, 2000: 8). Lehen aipatu dugunez, garai batean, kornubierak gainontzeko hizkuntza zeltikoekin izan zituen harremani esker biziraun zuen, batez ere bretoierari esker. Beraz, nazio zeltenganako hurbilketa horretaz baliatu zen Jenner hizkuntzari garai bateko estatusa berriro ere emateko, eta beraz, berpizkundera nekez uler daiteke harreman horiek gabe.

XX. mendearen hasieran nabaria zen hizkuntzak antolaketarako agintaritza argiago bat behar zuela (Ferdinand, 2013: 214), baina Jennerren gogo bizi horrek berpizkunderaren aldeko indarra ere handitu zuen, eta hainbat izen garrantzitsu hasi ziren azaltzen berpizkunde prozesuan: Robert Morton Nancek, adibidez, XX. mendeko lehen erdian berpizkunderaren aldeko lan nabariena egin zuen. Jennerrekin batera *Old Cornwall Society* (Antzinako Kornubiar Elkarte) sortu zuten 1920. urtean (Ferdinand, 2013: 214). Bertan, kornubiar nazionalismoa, kultura eta hizkuntza gorde eta bultzatzeko asmoak erakutsi zituzten. Horrez gain, gazteria erakartzeko ekimenak prestatzeko beharra azaldu zuten (Sgrúd, 2000: 17).

### 3.2. HIZKERA BATUA

Dena dela, oraindik hitzunek ez zuten jende nahiko ezagutzen haiekin hitz egiteko, eta hizkuntza zeremonia jakin batzuetan bakarrik entzun zitekeen. Berpizkundera gauzatzeko, ikuspuntu linguistikotik hainbat aspektu adostu behar ziren. Hala ere, adostasuna baino, liskarrak gailendu ziren prozesu horretan. Hori izan zen, azken finean, kornubieraren zailtasunik handiena (Ferdinand, 2013: 211).

Lehenik eta behin, ortografia-arauak finkatzea derrigorrezkoa zen, baina bakoitzak aldaera bat defendatu zuen. 1970. hamarkadan, garrantzi handia eman zitzaion ahozko hizkuntzari eta behar bezala ahoskatzeari. Hiztun askok Nancek plazaratutako ortografia zalantzan jarri zuten, eta kritika zein sistema berriak plazaratu ziren (Ferdinand, 2013: 212). Talde txiki batek sistemaren oinarriak ere kritikatu zituen eta kornubiera batua hizkuntza tradizionalaren aroetan oinarritu behar zela esan zuten, XVII eta XVIII. mendeetako hizkuntzan, hain zuzen ere (Ferdinand, 2013: 212). 1991an, Gendallen lan baten eskutik, ortografia-sistema berri bat sortu izan zen, Nowedga edo Azken Kornubiera. 2008. urtean, bilera eta erabaki askoren ostean, ortografia sistema unibertsal bat onartu zen. Hori bilakatu zen Idatzitako Forma Estandarra, eta eskuliburua ere argitaratu zuten (Ferdinand, 2013: 212).

Hala ere, ez zen ortografia izan kornubieraren arazo larriena: sintaxia, semantika eta lexikoa ere urriak ziren. Hizkuntzaren hutsuneak bretoiera oinarri hartuz bete ziren, hizkuntzen harremana eta antzekotasunez baliatu ziren-eta. Gramatika eta sintaxiaren arazoak Nance eta A. S. D. Smithek konpondu zituzten 1920 eta 1940 urteen artean, eta horretarako aurretik plazaraturiko lanetan ez ezik, bretoieraren gramatikan ere oinarriturik egin zuten (Ferdinand, 2013: 213). Lexikoaren inguruko arazoak zailagoak izan ziren konpontzen. Berpizkunderaren lehenengo hamarkadetan, ikasleek hiztegi zaharrak erabiltzen zituzten, baina hiztegiak aditu eta antzinako testuen itzultzaileentzako zeuden egokiturik, ez hogeigarren mendeko irakurleentzako. Ordura arte kornubieraz idatziriko lan gehienak antzerki erlijiosoak eta testu laburrak ziren, eta hiztegia oso murrizta zen. Hizkuntza aro modernoan erabili ahal izateko, noski, neologismo ugari behar zituen (Ferdinand, 2013: 213). Hitz berri asko Kornubiako leku-izenetatik edo bretoi zein galesetik eskuratu zituzten, baita Kornubian erabiltzen zen ingelesaren aldaeratik. Beraz, atal honen hasieran aipatu bezala, kornubieraren berpizkunde prozesua asko zailduko zen inguruko lurralde zeltekiko harreman sakon horiek gabe, hizkuntzari indarra eman ziolako, ez soilik XVI. mendean, baita berpizte prozesuan ere.

Berrikuntza eta aurrerapauso horiek guztiak Morton Nancek bildu zituen 1952 eta 1955. urteetan argitaraturiko bi hiztegitan (Hawke, 2006: 596-597). Hortik aurrera hainbat liburu eta hizkuntza ikasteko lan-tresna plazaratu ziren. Dena dela, egoerak txarrera egin zuen hizkuntza talde zehatz batzuek finantzaketa publikoa lortu zutenean eta beraz, beste hizkuntzaren aldeko erakunde batzuek faboritismoa leporatu zieten (Sayers, 2012: 104). Horrek kontrako efektua izan zuen eta finantzaketa hasi zuten erakundeek hura etetea erabaki zuten. Galerarik handienetako bat 80ko hamarkadan gertatu zen, Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Bulegoak haien laguntza atzera bota zuenean. Hizkuntzaren bultzatzaile gehienek interes bakarra, ordea, hizkuntzaren biziraupena zen, eta elkarreei eztabaidak alde batera utzi eta sistema unibertsal bat adosteko eskatu zieten. Sistema horrek bakarra, ofiziala, eta neutrala izan behar zuen hezkuntzan eta bizitzan orokorrean erabili ahal izateko (Bock eta Bruch, 2008: 1).

### 3.3. HIZKUNTZA ETA POLITIKA

Ikuspuntu politiko batetik, bestalde, mendearen erdialdean, 1950 urtean, Kornubiar nazionalismoaren adierazle garrantzitsuena sortu zen, *Mebyon Kernow* (euskaraz, Kornubiako seme-alabak; ingelesez, *Sons of Cornwall*). *Mebyon Kernow* alderdi politikoa izan zen, eta gaur egun ere existitzen da (Sayers, 2012: 103).

Hala ere, garai hartako hizkuntzaren berpizkundearen alde egin zuten aktibistak gradualki nazionalismotik urrundu ziren, batez ere bi arrazoiengatik: lehenengoa, *Cornish National Liberation Army* edo *An Gof*<sup>4</sup> (euskaraz, Askatasunaren Aldeko Kornubiar Nazioko Armada) delakoaren jarduera kriminalagatik izan zen. Muturreko ideia eta ekintza horiek, askotan, fenomeno negatibo gisa ulertzen dira, eta nazio batekiko estigma sor dezake (May, 2001: 20). Bigarrena, Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunaren barruan onartua izatea izan zen: EUHG<sup>5</sup> (ingelesez, ECRML) ez du premisarik subiranotasunean, eta beraz, nazionalismoa zalantzarria izan zitekeen estrategiaren ikuspuntutik (Sayers, 2012: 103). Kornubiar identitateak, hala, ez zuen aukerarik izan nazionalismoa garatzeko: hiztun gehienek jarrerak hizkuntzaren ekarpen kulturala onartzen zuen, baina hiztun horiek, orokorrean, ez zuten Kornubia nazio gisa ikusten. Aparteko nazio sentimenduari buruz Charles Thomas irakasleak hitz egin zuen 1973an,

---

<sup>4</sup> An Gof edo CNLA militante kornubiarrek sorturiko tarde nazionalista izan zen. 1980an azaldu ziren lehenengo aldiz, organizazioak lehergailu bat jarri zuenean St. Austell herriko auzitegian. (The Velvet Rocket, 2012).

<sup>5</sup> Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Gutuna.

Redruth (kornubieraz, *Resrudh*) herriko Kornubiar Ikasketen Institutuko zuzendariak. Haren hitzetan, bere nazio sentimendua ezin zen ulertu “nazionalismo politiko” gisa (Thomas, 1973: 3).

#### 4. GAUR EGUNGO EGOERA

Kornubiera nolabait legez babestea beharrezko pauso bat zen berpizkundearen oinarri horiek eraginkorrak izan zitezten. Nick Raynsfordek, Eskualdeko eta Lekuko Gobernuoko Ministroak adierazi zuen 2002ko azaroaren 20an Erresuma Batuko Gobernuak kornubiera Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunaren II. Atalean (7. artikulua) onartu zuela (Ferdinand, 2013: 215). Gutun horren helburua historiako eremu urriko hizkuntza edo eskualde zehatz bateko hizkuntzak babestu eta sustatzea da, Europako dibertsitate kulturalari egiten dioten ekarpenagatik (Europako Kontseilua, 1992):

(...) Jakitun izanda Europako eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak Europako eskualdeetan eta herrialdeetan babestu eta sustatzeak ekarpen garrantzitsua egiten diola demokraziaren eta kultur aniztasunaren printzipioetan oinarrituta eraikitako Europa eraikitzeari, nazioen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren esparruetan. (Europako Kontseilua, 1992; itzulpena: Euskarabidea).<sup>6</sup>

Gobernuek haien politikak, legislazioa eta praktikak Gutuneko II. atalean agertzen diren helburuetan oinarritu behar dituzte, eta hizkuntzaren ekarpen kulturala onartu behar dute, bai eta hizkuntza hori erabiltzen duen eremu geografikoa errespetatu ere, erabilera errazteko asmoz. Gainera, hizkuntza ikasteko eta irakasteko moduak eta tresnak eman behar dizkiote biztanleriari (Europako Kontseilua, 1992). Gutunak onartu egiten du hizkuntza bakoitzaren egoera nabarmen aldatu daitekeela eta hala, badirudi gobernuek zentzuzko neurriak hartu ditzaketela hizkuntza bakoitzaren egoera kontuan hartuta. Kornubieraren kasuan, Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunaren barruan onartu izanak behartu egin zuen Erresuma Batuko Gobernuak ikasle eta hiztunen nahiak eta beharrak asetzera. Gainera, hizkuntzari aparteko sinesgarritasuna eman zion, eta hizkuntza, kultura

---

<sup>6</sup> Itzul. Euskarabidea: [https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/celrm\\_02101992\\_eu-2.pdf](https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/celrm_02101992_eu-2.pdf)

eta politika arloko erakundeek jarraibideak ezartzeko aukera izan zuten (Ferdinand, 2013: 216).

Boluntario ugariaren lan gogorrari esker, 2004. urtean kornubieraren lehenengo hizkuntza estrategia argitaratu zuten MAGA izeneko elkartearen baitan (*Cornish Language Partnership* ingelesez, *Keskowethyans an Yeth Kernewek* kornubieraz). Elkarte horri eman zioten estrategia prestatzeko eta kornubieraren erabilera sustatzeko ardura (Cornish Language Strategy, 2015: 4). 2014. urtean, Erresuma Batuko gobernuak kornubiera eremu urriko hizkuntza gisa onartu zuen Europar Kontseiluaren Nazio-gutxiengoak Babesteko Esparru Hitzarmenean (Cornish Language Strategy, 2015: 10). Edonola ere, kornubieraren biziraupena asko baldintzatzen dute kanpoko hainbat faktorek, eta hizkuntzaren arrakasta edo arrakasta eza jasotzen duen laguntzaren araberakoa izango da.

Gaur egun, kornubieraren erabilera oso bazterrekoa eta marjinala den arren (biztanleriaren % 1ak besterik ez du erabiltzen<sup>7</sup>), erabilerak gora egin du. Sgrùd txostenean (2000) azaltzen zenaren arabera, 300 hiztun inguru zituen hizkuntzak (Sgrùd, 2000: 20), eta hamaika urte beranduago, Erresuma Batuko erroldak 600 pertsona bildu zituen kornubieraren hiztunen artean (Ferdinand, 2013: 216). Azken lanek aipatzen dutenaren arabera, kornubieraz 3.000 pertsona inguruk ezagutzen dituzte hitz edo esaldi batzuk, baina hizkuntzaren maila altua 500 hiztun inguruk bakarrik dute (Ferdinand, 2018: 57). Hitztunek ez ezik, hizkuntzarekiko elkartasunak ere gora egin du. Erakunde eta hizkuntzaren alde egiten dutenen helburua kornubiera herri-hizkuntza izatera itzultzea da, eta horretarako, askok, hezkuntzan jarri nahi izan dute garrantzia.

Ildo horretatik, kornubieraren presentzia ez da oso nabaria izan hezkuntzaren esparruan. XXI. mendearen hasieran hala edo nolako kornubiera eskolen berri eman zuten hamabi lehen hezkuntzako zentro eta lau bigarren hezkuntzako zentrotan (Cornwall Council, 2004). Kornubieraren hezkuntza-esparruko erabilera ez da jasotzen lege-dokumentuetan, eta beraz, ez du legezko babesik, baina aldi berean legeak ez du baztertzen (Sayers, D., Davies-Deacon, M., eta Croome, S., 2019: 10). Kornubiera curriculumetik kanpoko irakasgaia da gaur egun, eta ez da eskatzen lanpostuetarako; hala, ez da ikasten lanpostu publikoetara heldu ahal izateko. Gainera, ez da erabiltzen hizkuntza bera ez den beste ikasgairik erakusteko (Hut, 2001).

---

<sup>7</sup> Ferdinand, 2019: 107

MAGA elkarteak Kornubiera Hizkuntzaren Estrategia plazaratu zuen 2015-2025 urteetarako. Estrategia horrek lau helburu nagusi ditu:

- Hitzun kopurua handitzea
- Kornubiera komunitate-hizkuntza gisa erabiltzea
- Kornubieraren profila eta estatusa mantentzea
- Kornubiera hizkuntza dinamiko gisa mantentzea eta hainbat esparrutan erabiltzeko modukoa izatea (Cornwall Council, 2015: 8)

Helburu horiek betetzea ezinbestekoa da hizkuntzaren biziraupena bermatzeko. Edozein kasutan ere, gaur egun oraindik kornubiera oso ahula da eta esan bezala, kanpoko faktoreek eragin handia izango dute hizkuntzaren bilakaeran. Horretarako, Kornubian bizi diren eta hizkuntza ez dakiten biztanleak ere erakarri beharko lirateke, baina hori lortzeko beharrezkoak dira hizkuntzaren aldeko jarrera positiboak (Ferdinand, 2019: 109).

Siarl Ferdinand hizkuntzalariak 2019an egin zuen ikerketaren arabera, ordea, kornubiar nazionalismoak ez du, gutxienez gaur egungo egoeran, indar nabaririk. Inkestan parte hartu zutenen artean, kornubiera hitzunen % 75ak beren burua «kornubiar» izendatu zuten. Hitzunak ez zirenen artean, ordea, % 29ak bakarrik izendatu zuen beren burua hala (Ferdinand, 2019: 116). Beraz, hizkuntza erabileraren eta identitatearen artean korrelazio nabarmena dagoela esan dezakegu. Hala ere, emaitzak guztiz bestelakoak izan ziren kornubiar nazionalismoari buruzko iritzia emateko eskatu zitzaizkion: gehienek ez zuten kornubiar nazionalismoa onartu. Kornubiar nazionalismoaren aurkako jarrerari buruz galdetu nion Siarl Ferdinandi, eta bere hitzetan «arazoa “nazionalismo” hitza da (...). Euskaldunen, katalanen edo galiziarren kasuan ez du kontrako konnotaziorik (...), baina beste kultura askotan ez da berdina gertatzen. (...) Horregatik jendeak normalean ez du onartzen kornubiar nazionalistak direnik, (...) baina hitzun horietako askok ez dute beren burua “britainiar” gisa ikusten, “kornubiar” gisa baizik». (Ferdinand, 2021: email bidez, itzulpena nirea).

## **5. KORNUBIERA ETA HEBREERA AURREZ AURRE**

Kornubiera ez da izan azken mendeotan biziberritu den hizkuntza bakarra. Badira arrazoi ideologiko zein soziolinguistiko ezberdinengatik berpiztu edo sortu diren beste hizkuntza batzuk ere. Sarri, hizkuntzen sorrera edo *birsorreraren* arrazoiak estralinguistikoak dira, eta arrazoi politiko zein ideologikoei lotzen zaizkie. Horren

erakusle da, adibidez, hebreeraren (gaur egun Israelgo Estatuko hizkuntza ofizialaren) berpizkunde prozesua.

Hebreera ere, kornubieraren moduan, XIX. eta XX. mendeetan berpiztu zen hizkuntza herrikoi gisa. Hizkuntzak, beste askok ez bezala, ez zuen berezko lurralderik izan urteetan, eta lurraldeari baino, erlijioari lotu izan zaio, hain zuzen ere, judu-komunitateari. Aipatu dudanez, kornubiera bezala, hebreera ere hizkuntza herrikoi gisa galdu zen heriotza-prozesu natural baten ondorioz (Lemus, 2012: 73). Hala ere, hizkuntza ez zen sekula ere guztiz hil; komunitate juduak liturgiarako erabiltzen jarraitu zuen, eta beraz, idatziriko kulturak oinarri sendoa lortu zuen, XIX. mendera arte hizkuntzaren literatura idatzia nabarmen landu zelako (Lemus, 2012: 73). Batez ere testu erlijiosoak idatzi ziren arren, beste esparru batzuk ere landu zituzten hizkuntzaren erabiltzaileek. Hori nabarmena izan zen XIX. mendeko erdialdetik aurrera, *Haskalako* (edo Judutar Ilustrazioko) idazleak hebreeraz idatzen hasi zirenean judutar kultura eta nazionalismoa sustatzeko asmoz (Safran, 2005: 45). Hebreerak, beraz, kornubierarekiko abantaila handia izan zuen: kultura idatzi oparoa.

Oinarri sendo horrekin, hizkuntza idatzia herri hizkuntza bilakatzeko prozesua hasi zen 1850 eta 1880 urteen bitartean, judu-komunitateak Palestinara egindako immigrazio bolada baten ondorioz (Spolsky eta Cooper, 1991, Lemusen lanetik, 2012: 73). Immigrazio bolada horretan jatorri eta hizkuntza ezberdineko pertsona ugari bildu ziren, baina bazuten ezaugarri komun bat: gehienek ezagutzen zuten hebreera idatzia (Lemus, 2012: 73). Kornubierak ez bezala, hizkuntzak ospe handia irabazi zuen *lingua franca*<sup>8</sup> gisa, eta ama-hizkuntza ezberdina zuten immigratzaileek elkar ulertzeko komunikazio hizkuntza gisa erabili zuten. Hebreeraren ospea nahikoa izan zen eskoletan bigarren hizkuntza gisa irakasten hasteko (Lemus, 2012: 73). Faktore horiei esker, berpizkundera azkar gertatu zen: 1882an Palestinako biztanleria juduaren % 0,1ak besterik ez zuen hebreera egunerokotasunean erabiltzen, baina 1916an % 40a izan zen, eta 1995ean % 88,9a (Zabaltza, 2006: 96). Kornubieraren kasuan, aldiz, estimatzen da 1980an biztanleriaren % 0,01ak baino ez zuela kornubieraz hitz egiten. Hogei urteren buruan hitzun kopurua sei aldiz handitu zen arren, XXI. mendearen hasierarako hitzunak, oraindik ere, populazioaren % 0,06 inguru izan ziren<sup>9</sup>. Gaur egun, goian aipatu bezala,

---

<sup>8</sup> *Lingua franca*. (hizk.) Normalean hezkuntza-komunitateak harremanetarako erabiltzen duen hizkuntza, kideen artean ama-hizkuntza bat baino gehiago dagoenean. (RAE) <<https://dpej.rae.es/lema/lengua-vehicular-en-la-ense%C3%B1anza>>

<sup>9</sup> Ez dago datu zehatzik kornubiar hitzunen inguruan, eta datu hauek estimazio zehaztugabeak dira; Deaconen (2007) lanetik eta Ferdinanden (2013) lanetik lorturiko datuekin atera ditut.



hiztunen kopurua % 1era hurbiltzen da, eta hori hizkuntzen arteko aldearen erakusle nabaria da: kornubierak gaur egun hebreerak XIX. mende amaieran zuen hiztun kopurua besterik ez du. Hebreeraren arrakastaren arrazoi nagusietako bat akademien (hebreeraz, *ulpanim*) sorrera izan zen: 1948an Israelgo Estatua izendatu zenetik 1954ra arte, urtero batez beste 58.000 pertsonak ikasi baitzuten hebreeraz. Esan daiteke, hala, hezkuntzak ezinbesteko rola izan zuela hebreeraren berpizkunde prozesuan, beste eremu urriko hizkuntza askoren bultzadan gertatu den bezala; izan ere, Leanne Hinton hizkuntzalariak dio ganorazko hezkuntza elebidunak soilik sor ditzakeela hizkuntza erraz erabili dezaketen hiztunak (Hinton, 2011: 312).

Hala ere, hezkuntzak soilik ezin du hizkuntza txikitu bat hizkuntza nagusi bihurtu, eta noski, ezin du hizkuntza bat bere kabuz berpiztu. Horregatik argitu nahiko nuke hebreeraren arrakastak nazionalismoa izan zuela oinarri nagusia, kornubierak ez bezala. Goian aipatu dudan moduan, judu komunitateak hebreera ezagutzen zuen nola edo hala, eta beraz, komunitatea batzeko hizkuntza aproposena izan zen. Ben Yehudak, askoren iritziz «hebreeraren aita» izan zenak, hebreera judutar nortasunaren erdiguneak jarri zuen, eta judaismoaren bereizgarri gisa adierazi zuen. Nazien genozidiora arte, juduen artean hizkuntza hedatuena yiddish germaniar hizkuntza izan zen. Naziek sei milioi judu hiltzearekin batera, yiddisha ere hein handi batean akabatu zuten, European behintzat (Zabaltza, 2006: 86). Sarraskiak, hala, hebreera ikasteko motibazioa areagotu zuen Diasporako juduengan: Bigarren Mundu Gerran jasandako zapalkuntzaren ostean, hizkuntzak komunitate gisa batzeko eta behar-beharrezkoa zuten beren identitatea indartzeko aukera eman zien (Lemus, 2012: 76). Palestinako juduei dagokienez, hebreera hizkuntza nagusia zen Israelgo Estatua aldarrikatu baino lehen (Zabaltza, 2006: 96). Ideologiak, hala, oinarrizko ezaugarri gisa egin zuen lan hebreeraren berpizkundera, hizkuntza sionismoak piztu zuelako.

## **6. ONDORIOAK**

Lan honen hasieran aipatu dut eremu urriko hizkuntzen eta identitatearen arteko erlazioak konplexuak direla aspektu askotan. Konplexutasun eta errealitate ezberdinak aztertu ahal izan ditut lanean zehar, eta horiekin batera hizkuntzen sorkuntzan eta berpizkunderetan eragiten duten hainbat faktore hauteman ditut. Aldi berean, nazionalismo edo ideologiaren eta hizkuntzen arteko erlazioa ikusi ahal izan dut.

Lehenik eta behin, Kornubiaren bilakaera aztertzean, ikusi dut hizkuntza prozesu gradual baten ondorioz eta ingelesaren nagusitasunak eragindako diglosia egoeragatik galdu zela. Heriotza gertatu zenerako jada kornubierak ez zuen hizkuntza gisa estatus eta ospe nabarmenik, eta heriotza gertatu zenerako, lurraldeko biztanleriaren nortasuna ezin zen ulertu britainiar nortasun eta nazionalismotik bereizirik. Handik mende batera, hizkuntza berpiztu egin zen erdi-mailako klasearen eskutik, baina berpizkundeak ez zuen izan helburu politiko edo ekonomikorik. Kornubiera beste hizkuntza zelta batzuen berpizkunderi loturik etorri zen; izan ere, erro zeltikoetara itzultzeko asmoarekin ekarri zuen erdi-mailako klaseak. Gainontzeko eremu zeltikoekiko (eta batez ere Britainiaren ekialdeko) lotura gabe, beraz, prozesua ezin izango zen aurrera atera. Edonola ere, hizkuntza ez zen herri zapaldu baten batzeko beharretik berpiztu, eta beraz, zio politikoak ez zuen bere bidea hartu. Gutxi batzuk saiatu ziren arren, hizkuntzaren berpizkundeak ez zuen kornubiar edo zelta nazionalismoa ekarri, eta herriak ez zuen oinarri sendorik izan hizkuntza berriro ere erabiltzen hasteko. Hori gaur egun ere ikusi daiteke: nazionalismoarekiko jarrera, orokorrean, negatiboa da, eta beraz, herriak hizkuntzaren eta politikaren loturari uko egiten dio. Kornubierari, funtsean, balio kulturala ematen zaio, eta politizazio falta horren ondorioz, ez da biztanleriaren lehentasun bihurtu; areago, ez da hezkuntzan erakusten, eta ez da beharrezkoa lanpostu publikoetarako. Hizkuntzaren aldeko proiektu politikoa oso ahula da, eta populazioaren jarrera aldatzen ez bada gutxienez, zaila izango da hizkuntzaren biziraupena bermatzea.

Bigarren, kornubierarekin aurrez aurre jarri dut hebreera. Hebreeraren berpizkundera, aipatu bezala, sionismoaren eskutik gertatu zen hein handi batean. Jatorri ezberdineko juduak Palestinan elkartu zirenean hasi zen berpizte prozesua, hizkuntza elkar ulertzeko tresna gisa erabili zuten-eta. Komunitateak, bereziki Bigarren Mundu Gerraren ostean, batzeko eta beren identitatea indartzeko beharrezkoa zuen hizkuntza komun bat. Hala, hebreeraren berpizkunde-prozesua ezin da ulertu juduen nazionalismorik gabe, eta ezin da ulertu hizkuntzaren aspektu politikotik bereizirik. Hebreera proiektu politiko baten baitan berpiztu zen, eta hortik etorri zen, hein handi batean, bere arrakasta. Kornubieraren kasuan, bestalde, proiektu politiko definiturik gabe, eta hizkuntzaren oinarri izan beharko lukeen nazionalismoa oso ahula izanik, berpizkunderaren arrakasta ere mugatua izan da. Ondorioz, esan daiteke hizkuntzaren balio sinboliko hutsak ez duela indar nahikorik, bere kabuz, hizkuntzaren berpizkunde arrakastatsua gauzatzeko, hizkuntzak produktu kulturalak diren bezala, produktu politikoak ere badirelako.

Aldi berean, eta horrekin loturik, hizkuntzen sorrera eta nazionalismoen arteko hierarkia ere nabarmendu nahiko nuke. Aipatu ditudan adibideetan ikusi daiteke, hizkuntzen sorrera, askotan, prozesu estralinguistikoa dela. Horren adibide nagusi ditugu Balkanak. 90. hamarkadan Jugoslavia desegin zen arte, Serbian, Kroazian, Bosnia-Herzegovinan eta Montenegron hizkuntza ofizial bakarra zegoen: serbokroaziera edo kroatoserbiera (Zabaltza, 2006: 46). Gaur egun, ordea, Jugoslavia osatzen zuten herrialdeetako bakoitzak berezko hizkuntza ofiziala du. Hizkuntzen arteko harremanak Heinz Kloss hizkuntzalari alemaniarren (1967) *Abstandsprachen* (hizkuntza naturalak) eta *Ausbausprachen* (hizkuntza garatuak) teoriarekin azaldu daitezke. Izan ere, haren teoriaren arabera *Abstand* hizkuntzak elkarrengandik ikuspuntu linguistikotik bereizten diren hizkuntzak dira. *Ausbauspracheak*, ordea, hizkuntzaz gaindiko beste aspektu batzuegatik, hala nola aspektu sozial, kultural eta politikoengatik bereizten diren hizkuntzak dira. Serbiera eta kroaziera teoria horren adibide argia dira, hizkuntzak elkarrekiko *Ausbauspracheak* direlako. Bi hizkuntzen arteko ezberdintasun linguistikoak oso txikiak dira: hala kroaziera eta serbiera nola Jugoslavia ohiko beste hizkuntza batzuk ulergarriak dira elkarren artean, eta askotan, aldaerek estatuen arteko mugak gainditzen dituzte (Babić, 2010: 6). Dena den, Klossen teoriak aipatzen duenaren eskutik, aspektu linguistikoek garrantzia galtzen dute nazio ezberdinetako herritarrek hizkuntzari ematen dioten balio politikoak esku hartzen duenean. Gaur egun serbiera eta kroaziera nazionalismo serbiar eta kroaziarrei esker dira hizkuntza bereziak; hizkuntzen arteko bereizketa garatu egin behar izan da. Aipatu berri dudana nazionalismoen eta hizkuntzen arteko erlazio hierarkikoa bereziki nabarmena da hizkuntzarik gabeko nazionalismoen kasuan. Horren adibide argia dugu Europako mugimendu nazionalista nagusienetako bat: eskoziar nazionalismoa. Eskozia tradizio handiko lurraldea da, eta nazionalismo oso indartsua du historikoki. Edonola ere, lurraldeko berezko hizkuntza gainbeheran dago, eta hizkuntza nagusia ingelesa da gaur egun (Nihtinen, 2005: 119); hau da, nazionalismoak ez du inolako oinarri etnolinguistikorik. Hizkuntza gabeko nazionalismoen kasu are bitxiagoa dugu, baita ere, 90. hamarkadan Italian sortu zen mugimendu nazionalista. *Lege Nord* alderdi politikoak Padania izeneko lurraldea sortu eta bertako independentziaren alde egin zuen (Giordano, 1999: 217). Horretarako, Italiako iparraldeko eskualde ezberdinetako alderdiak bildu zituzten, eta italiarra estandarra erabili zuten hizkuntza komun gisa, bildutako eskualdeen aldaeren arteko ezberdintasunak gainditzeko.

Bukatzeko, adibide horiek guztiek hau baieztatzen dute: nazionalismoen eta hizkuntzen arteko harremanak hierarkia bat jarraitzen du. Izan ere, nazionalismoa hizkuntza gabe izan daiteke, baina hizkuntza nazionalismo gabe, orokorrean, heriotzara kondenaturik dago. Hori hala da, kasu batzuetan hizkuntzak nazionalismo politikotik sortzen direlako, eta ez alderantziz. Argi dago hizkuntza oso elementu garrantzitsua dela hainbat nazionalismoren kasuan, baina aldi berean, ez da ezinbestekoa nazionalismo indartsu bat sortzeko, nazionalismoak beste aspektu batzuetan oinarritu daitezkeelako. Edozein kasutan, nazioak zein hizkuntzak bizirauteko beharrezkoa dute elementu komun bat: herritarren borondatea, eta herritarren borondateak soilik eman diezaieke balioa eta estatusa.

## **7. ESKER ONAK**

Azkenik, lana bukatu aurretik, erronka hau aurrera eramaten lagundu didaten horiei eskerrak eman nahiko nizkieke. Lehenik eta behin, eskerrik beroenak nire tutoreari, Xabier Zabaltzari, lanaren zuzenketan izan duen prestutasunagatik eta pazientziagatik, baina bereziki konformatzen ez uzteagatik, nire ezagutza handitzera bultzatzeagatik, eta hurbilekoak ditudan errealitate ezberdinen berri emateagatik. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiot Siarl Ferdinandi, bere lanari buruzko argibideak emateaz gain, nire lana burutzeko ezinbestekoak izan diren iturriak nire eskutan jartzeagatik eta uneoro zalantzak argitzeko prest egoteagatik. Gainera, duela urte batzuk Europan zehar ezagutu nituen lagunei ere eskerrak eman nahi dizkiet, beren sorterriko errealitate ezberdinak ikuspuntu pertsonaletik azaltzarren. Bukatzeko, nire ingurukoei ere eskerrak, kanpoko begiak behar nituenean lana irakurtzeko prest egoteagatik, eta amore ematen ez uzteagatik.

## 8. BIBLIOGRAFIA

AMES, J. (2012). "In Search Of The Cornish National Liberation Army". *The Velvet Rocket*. <<https://thevelvetrocket.com/2012/01/10/in-search-of-the-cornish-national-liberation-army/>> [Kontsulta: 2021-04-10].

BABIC, M. (2010). "Language and political destruction. The case of Yugoslavia". *Intercultural Europe: Arenas of Difference, Communication and Mediation*. Stuttgart: ibidem-Verlag. 234-248 orr.

BOCK, A., BRUCH, B. (2008). An Outline of the Standard Written Form of Cornish. <[https://kernowek.net/Specification\\_Final\\_Version.pdf](https://kernowek.net/Specification_Final_Version.pdf)>. [Kontsulta: 2020-03-15].

CELTIC LEAGUE (1996). *Constitution of the Celtic League*. <[https://www.celticleague.net/wp-content/uploads/2009/12/CL\\_Constitution.pdf](https://www.celticleague.net/wp-content/uploads/2009/12/CL_Constitution.pdf)>. [Kontsulta: 2021-04-09].

CLAGUE, M. (2009). "Manx Language Revitalization and Immersion Education". *e-Keltoi: Journal of Interdisciplinary Celtic Studies*: 2. bol, 165-198 orr., 5. artikulua. <<https://dc.uwm.edu/ekeltoi/vol2/iss1/5>>. [Kontsulta: 2021-04-10]

CORNISH LANGUAGE OFFICE (2004). *Strategy for the Cornish language 2005-2025*. Truro: Cornwall Council. <<https://www.cornwall.gov.uk/media/25229704/cornish-language-strategy-2015-2025.pdf>>. [Kontsulta: 2020-11-09].

CORNISH NATIONAL MUSIC ARCHIVE. *Bro Goth Agan Tasow*. <<https://cornishnationalmusicarchive.co.uk/content/bro-goth-agan-tasow/>>. [Kontsulta: 2021-04-05].

CORNWALL COUNCIL. *Cornish Language Partnership Archive*. <<https://www.cornwall.gov.uk/leisure-and-culture/the-cornish-language/cornish-language/history-of-cornish/cornish-language-partnership-archive/>>. [Kontsulta: 2020-11-09].

CORNWALL GUIDE. *The Cornish Language*.  
<<https://www.cornwalls.co.uk/cornwall/language.htm>>. [Kontsulta: 2020-11-09].

COUNCIL OF EUROPE. *Signatures and ratifications of the European Charter for Regional or Minority Languages*. <<https://www.coe.int/en/web/european-charter-regional-or-minority-languages/signatures-and-ratifications/>> [Kontsulta: 2021-03-18].

DEACON, B. (2007). *Cornwall: A concise history*. Cardiff: University of Wales Press.

DUNMORE, S. (2020). A Cornish revival? The nascent iconization of a post-obsolescent language. *Journal of Historical Sociolinguistics*, 6 (1). <<https://doi.org/10.1515/jhsl-2018-0001/>>. [Kontsulta: 2021-03-17].

EUROPEAN COMMISSION (2012). “Europeans and their Languages”. Special Eurobarometer 386.  
<[https://ec.europa.eu/commfrontoffice/publicopinion/archives/ebs/ebs\\_386\\_en.pdf/](https://ec.europa.eu/commfrontoffice/publicopinion/archives/ebs/ebs_386_en.pdf/)>  
[Kontsulta: 2021-03-18].

EUSKALTZAINDIA (s.d.). *Bardo. Orotariko Euskal Hiztegia*.  
<[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oehberria&task=sarreraIkusi&Itemid=413&lang=eu-ES&id=131385](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=sarreraIkusi&Itemid=413&lang=eu-ES&id=131385)>. [Kontsulta: 2021-10-04].

EUSKO JAURLARITZA (s.d.) *Anglikanismo. Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*.  
<<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=anglikanismo>>. [Kontsulta: 2021-04-10].

FERDINAND, S. (2013). “A Brief History of the Cornish Language, its Revival and its Current Status”. *e-Keltoi: Journal of Interdisciplinary Celtic Studies*, 2. bol., orr: 199-227.  
<[https://www.researchgate.net/publication/329525331\\_A\\_Brief\\_History\\_of\\_the\\_Cornish\\_Language\\_its\\_Revival\\_and\\_its\\_Current\\_Status](https://www.researchgate.net/publication/329525331_A_Brief_History_of_the_Cornish_Language_its_Revival_and_its_Current_Status)>. [Kontsulta: 2020-11-09].

FERDINAND, S. (2020). “The Promotion of Cornish in Cornwall and the Isles of Scilly: Attitudes towards the Language and Recommendations for Policy”. *Studia Celtica*

*Fennica*. Bol. 16, 107-130 orr. <<https://journal.fi/scf/article/view/79496/>> [Kontsulta: 2021-03-10].

FERDINAND, S. (2021). *Kernewek*. [Posta elektronikoa].

FISHMAN, J. (1991). *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.

GEORGE, K. (1993). "Chapter 11: Cornish". *The Celtic Languages (2nd edition)*, M. Ball eta N. Muller. Londres: Routledge. 488-535 orr.

GIORDANO, B. (1999). "A place called Padania? the Lega Nord and the political representation of northern Italy". *European Urban and Regional Studies*. London: SAGE publications. 215-230 orr.

HALE, A. (1997). "Rethinking Celtic Cornwall: An ethnographic approach". *Cornish Studies Five*, Philip Payton. Exeter: Exeter University Press. 85-99 orr.

HALLIDAY, F. E. (1959). *A history of Cornwall*. London: Duckworth.

HAWKE, A. (2006). "Dictionaries and Grammars – Cornish". *Celtic Culture: A Historical Encyclopedia*, John T. Koch. Santa Barbara, CA: ABC-CLIO. 595-597 orr.

HINTON, L. (2011): "Language revitalization and language pedagogy: new teaching and learning strategies", *Language and Education*, 25:4, 307-318.

HISTORIC UK. *The Cornish Language*. <<https://www.historic-uk.com/CultureUK/The-Cornish-Language/>>. [Kontsulta: 2020-11-09].

KLOSS, H. "'Abstand Languages' and 'Ausbau Languages'". *Anthropological Linguistics* 9, bol 7. 29-41 orr.

LEMUS, J. (2012). "The resuscitation of Hebrew and its implications for language revitalization". *Científica*, bol. 1. 71-82 orr.



MACKINNON, K. (2005). “Development of Cornish language and literature”. *Rebuilding the Celtic languages: Reversing language shift in the Celtic countries*, D. Ó Néill. Talybont: Y Lolfa. 214–274 orr.

MAY, S. (2001). *Language and Minority Rights*. Essex: Pearson Education Limited.

NIHTINEN, L. K. (2005) “Scotland’s Linguistic Past and Present: Paradoxes and Consequences”. *Studia Celtica Fennica II*, bol. 2. 118-137 orr.

PAYTON, P. (2004). *Cornwall: A History*. Fowey: Cornwall Editions Ltd.

SAFRAN, W. (2005). “Language and Nation-Building in Israel: Hebrew and its Rivals”. *Nations and Nationalism*, 11. 43 – 63 orr. <<http://dx.doi.org/10.1111/j.1354-5078.2005.00191.x>>. [Kontsulta: 2021-05-06].

SAYERS, D. (2012). “Standardising Cornish: The politics of a new minority language”. *Language Problems and Language Planning*, 36. 99-119 orr.

SAYERS, D., DAVIES, DEACON, M., ETA CROOME, S. (2019). *The Cornish language in education in the UK*. (2. ed.) Ljouwert: Mercator European Research Centre on Multilingualism and Language Learning.

THOMAS, C. (1973). *The importance of being Cornish in Cornwall: An inaugural lecture*. Redruth: Institute of Cornish Studies.

UNESCO (2009). New edition of UNESCO Atlas of the World's Languages in Danger. <<http://www.unesco.org/new/en/member-states/single-view/news/new-edition-of-unesco-atlas-of-the-worlds-languages-in-dang-1/>>. [Kontsulta: 2021-04-10].

WILFORD, J. B. (2007). “World’s Languages Dying Off Rapidly”. *The New York Times*. <<https://www.nytimes.com/2007/09/18/world/18cnd-language.html/>>. [Kontsulta: 2021-03-18].

WILLIAMS, C. H. (2008). *Linguistic minorities in democratic context*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.

WILLIAMS, D R. (1993). "Edward Lhuyd in Cornwall in 1700", *Prying into every hole and corner*. Redruth: Dyllansow.

<[https://www.flip3r.com/scripts/un981c61?a\\_aid=d58040dd&a\\_bid=c28f910b&chan=25\\_06\\_2020\\_my\\_books&data1=Derek+Williams+-+Prying+Into+Every+Hole+And+Corner&data2=main&p=af/](https://www.flip3r.com/scripts/un981c61?a_aid=d58040dd&a_bid=c28f910b&chan=25_06_2020_my_books&data1=Derek+Williams+-+Prying+Into+Every+Hole+And+Corner&data2=main&p=af/)> [Kontsulta: 2021-04-29].

ZABALTZA, X. (2006). *Historia de las lenguas y los nacionalismos*. Barcelona: Gedisa.